

Garazi Aramburu Llorens

A maila • 2 saria

1999ko abenduaren 8an ireki nituen lehenengo aldiz begiak. Betidanik Beasain izan dut bizileku, bertako institutuan batxilergoko bigarren urtea egiten ari naizelarik.

Urteroko lez, orri txuri bati aurre egitea egokitu zitzaidan, hutsetik hasi beharreko ipuin bati, zehazki. Nondik hasi ere ez nekien, inspirazioa ez bainuen lagun. Uztear nengoela, gaur artean ezezaguna zitzaidan esparruan murgiltzea erabaki nuen, hau da, olerkigintzan. Inguratzen ninduen begiratzearekin batera hantxe hasi nintzen tiki-taka orri txuri hori koloreztatzen.

Nire zaletasunen artean kirolarekin eta musikarekin zerikusia duen edozer dago. Irakurtzea ere gustuko dut, baina egunerokotasunean ez dut horretaz gozatzeko behar adina denbora.



IZANAREN LELOA

Arrosak ere sentituko du
elorri iltzatua, haizeberritzean desagertzen
ez den atxikitako zama.

Haizeak ere sentituko du triskantzaren
oinazea, ezin itzul litezkeen ametsen hoben
jasanezina.

Denborak ere sentituko du izanaren
nahasmena, Aurrera joateko baina
itzultzeko gauzaez hutsa.

Hitzek ere sentituko dute mintzearen
orbain latza, sustrairik sakonena errotik
idokitzearen ahalegin etengaitza.

Txoriak ere sentituko du haizearen
inarrosia, zeruertzera aitzinatu arren oratu
ezin litekeena.

Neuk ere sentitu dut umotzearen nostalgia,
gurasoen babesetik ihes egitearen
burujabetasun jasanezina.

Nork bere ikuspuntu
besteen nortasuna onartzea zail du.
Betegintzarra erdiestea ezinezkoa dela,
denok dakigu.

Idealizatutako munduaren esperoan,
bizitzaren bidean behaztopatua, irtenbiderik
gabeko zurrumbiloan estekatua, irtenbide
guztiek diraute hesituak.

Iraganaren orbain sakonak orainaren
anabasaren iturri dira. Izandakoaren eta
izanaren ezbai ezilkorak erantzunaren bila
garamatza.

Gabezia hutsalek buruhaustea dakartzate.
Nahiz eta inozentzia
askotan dugun baztertzen, lelotzat hartzeak
edozein du ikaratzen.

Saia gaitezen ahulguneak ahazten bizitzak
ekarriko diguna baitzaigu begitantzen.